

KOSTU EGITURA

Sendero Vivo-ren kostu egitura Medellínko testuingurura egokituta dago. Proiektua zerbitzuan oinarritzen denez, ez du azpiegitura astunik behar, eta horrek aukera ematen du gastuak kontrolpean edukitzeko. Kostu nagusiak ekitaldi bakoitzarekin zuzenean lotuta daude, eta horrek negozio-eredua malgua eta errealista bihurtzen du.

Kostu finkoak (hilekoak)

Hasierako fasean, egitura arina mantentzen da, ohikoa den moduan Kolonbiako zerbitzu enpresetan.

- Webgunearen hosting-a eta mantentzea:
35€ / hilean → 150.000 COP
- Software profesionala (diseinua, plangintza, komunikazioa):
90-110€ / hilean → 390.000-470.000 COP
- Internet, telefonoa eta oinarritzko administrazioa:
70€ / hilean → 300.000 COP
- Aseguru sinpleak eta gestoria:
70-90€ / hilean → 300.000-390.000 COP

Kostu finko guztiak batera: 265-305€ / hilean (1.140.000-1.310.000 COP / hilean)

Urtean: 3.200-3.700€ / 13-16 milioi COP

Kostu aldagarriak (ekitaldi bakoitzeko)

Medellinen 80–120 pertsonako ekitaldi jasangarri ertain baten batez besteko kostuak:

- Catering tokiko eta jasangarria:
1.000-1.600€ → 4.300.000-6.900.000 COP
- Dekorazio naturala eta artisautza lokala:
350-700€ → 1.500.000-3.000.000 COP
- Musika edo kultur jarduerak (taldeak, tailerrak):
250-600€ → 1.100.000-2.600.000 COP
- Garraio jasangarria eta logistika:
200-350€ → 860.000-1.500.000 COP
- Hondakinen kudeaketa / konpostajea:
80-150€ → 350.000-650.000 COP

Kostu aldakorrak guztira: 1.880-3.400€ ekitaldi bakoitzeko (8-14,6 milioi COP)

Giza baliabideen kostuak (ekitaldi bakoitzeko)

Kolonbian lan espezializatua oraindik merkeagoa da Europarekin alderatuta, baina kalitatezko lana behar bezala ordaintzen da.

- Ekitaldiaren diseinu, plangintza eta koordinazioa:
500-900€ → 2.150.000-3.900.000 COP
- Ekitaldiaren eguneko presentzia eta kudeaketa:
250-450€ → 1.100.000-1.950.000 COP

Giza baliabideen kostua: 750-1.350€ (3,2-5,8 milioi COP)

Ingurumen eta gizarte-kostuak

Tokiko hornitzaileekin lan egiteak %10–20 arteko kostu handiagoa izan dezake, baina inpaktu positiboa sortzen du.

- Catering industrialia: 12-14€ / pertsona
(52.000-60.000 COP)
- Catering tokiko eta ekologikoa: 15-17€ / pertsona
(65.000-73.000 COP)

Hasierako inbertsioa

- Webgunea eta marka-irudia:
900-1.300€ → 3,9-5,6 milioi COP
- Argazkiak, bideoa eta material bisuala:
400-700€ → 1,7-3 milioi COP
- Networking, promozioa eta lehen ekitaldietarako prestaketa:
300-500€ → 1,3-2,1 milioi COP

Hasierako inbertsioa guztira: 1.600-2.500€ (6,9-10,7 milioi COP)

Eskala-ekonomiak Medellingo testuinguruan

Urtean 12-18 ekitaldi antolatuz gero:

- Hornitzaileekin prezioak %5-10 jaitsi daitezke.
- Material berrerabilgarrien kostua amortizatzen da.
- Kostu finkoen pisua txikiagoa bihurtzen da.

Hazkundea, hala ere, kontrolatua eta jasangarria izango da.